

Proiektuak web bidez zintzilikatzeko hainbat argibide:

Proiektuak web atarian zintzilikatzeko, hainbat argibide emango dizkizugu atal honetan.

Zintzilikatzera zoazen fitxategiak zein formatu du?

1- POWER POINT

Powerpointek duten arazo nagusia, euren pisua da. Pisua, txertatu ditugun argazki eta irudiek ematen die. Hortaz, komenigarria da, argazkiak ahal dan neurrian erresoluzio baxukoak izatea:

Power point fitxategia sortu aurretik:

Photoshop programaren bitartez:


- Irudiari nahi diogun tamaina emango diogu (altuera eta zabalera).
 - o *Tamaño de imagen*
 - o Altuera eta zabalera eman
- Gordetzerakoan:
 - o *Archivo – Guardar para web*
 - o Nahi den formatua aukeratu (jpg, gif) eskubiko aldean
 - o *Guardar*

Power point fitxategia sortuta baldin badago:


Modu orokorrean kendu diezaiokezu pisua. Nola?

PC:

- Fitxategia ireki
 - o *Guardar como*



- Herramientas – comprimir imágenes



- Aceptar

Fitxategiaren irudi guztiei kalitatea jaitsiko die eta ondorioz pisua ere jaitsiko du.

2- BIDEOAK

- Sortzerakoan, kalitate baxuan gordetzen saiatu.
- Formatu egokienak: .avi, .mpeg

Egokiena bideo hauek Euskaltube-n zintzilikatzea litzateke. Horretarako jarraitu beharreko pausuak ondorengoak dira:

- <http://euskaltube.com/> helbidera sartu:
 - Erregistratu:
Erregistratzeko, eposta helbidea, erabiltzaile izena eta pasahitza ematea beharrezkoa da.
 - Zure e-postara erregistratu izanaren mezua jasoko duzu.
 - Webgunean, *bidali/ kudeatu nire bideoak orain* aukera klikatuz, hurrengo pantailan, *bidali bideo bat* hautatu.
 - Bideoa bidaltzerakoan, bideoaren inguruan izenburua, azalpenak, etiketak... eskatuko zaizkizu. "Katea" aukeran, "Hezkuntza" aukera aurkituko duzu.
 - Onartzen diren fitxategiak ondorengoak dira: .mpg, .mpeg, .avi, .mp4, .flv.
- Bideoa euskaltuben zintzilikatu ostean, Hik Hasi web atariko proiektuen atal honetan, fitxa berri bat sortu eta lotura egin bideo horretara.

3- WEBGUNEAK

- Sinpleena zuzenean lotura egitea da.
- Web gune hori denbora jakin baterako baldin bada, hoberena proiektua Hik Hasin zintzilikatzea litzateke. Horretarako:
 - o Web gune osoa direktorio batetan konprimitu (.rar edo .zip batean)
 - o Hik Hasira bidali

4- BLOGAK

- Helbidea loturen atalean sartuta nahikoa

Aholku horiek jarraituta ere zure proiektua zintzilikatzeko arazoak badituzu, edo pixu muga pasatzen badu, (5 MB), bidali guri proiektua eta zerbitzaritik zintzilikatuko dugu.

Tamaina haundiena: 5 MB

Guri bidaltzeko:
ataria@hikhasi.com

Errekalde etorbidea, 59
Aguila eraikina, 1
Donostia, Gipuzkoa

Gurekin harremanetan jartzeko: 943 37 14 08